

# EUSKERAREN JAIOTZA

Bazen behin, orain dela urte asko eta asko, historiaurre garaian, pertsonak ez zeukaten hizkuntzarik komunikatzeko. Kobazuloetan taldetan bizi ziren. Janaria lortzeko ehizatu egiten zuten, eta arropak animalien larruekin egiten zituzten. Erabakiak taldeka hartzen zituzten eta zaharren iritsiak garrantzitsuak ziren.

Korroan biltzen zirenean hasarretu egiten ziren ez zutelako hizkuntzarik. Gaizki ulertu asko izaten zituzten, keinuen bidez komunikatzen zirelako.

Bazegoen talde bat Askondo kobazuloan bizi zena. Nagusienak Lur eta Zira ziren. Hauek pentsatu zuten udaberri hasieran ehizara joatea. Horretara joan zirenean, basahuntz talde bat ikusi zuten. Orduan Lurrek esan zuen:

-Basahuntzak eskumatara!!

Baina, Zirak eta hainbatek, ezkerrera egin zuten, erratuta.

Nahaste-borraste horretan, Lurrek bakarrik bota zuen lantza, eta orein bat bakarrik harrapatu zuten.

Kobazulora haserre iritsi ziren eta hizkuntza bat beharrezkoa zutela erabaki zuten. Arratsalde horretan, denak zelai baten korroan bildu ziren, eta Lur eta Zira erdian jarri ziren. Hizkuntza asmatzeko, horman irudi bat marrazten zuten harrien pinturarekin, eta gero horri, denen artean, izena ipintzen zioten.

Apurka-apurka, gauza guztiei izena ipintzen hasi ziren, eta gure hizkuntza, Euskera, jaio zen.

Eta egia edo gezurra, bi begien artean sudurra.